

Segurtasun Legearen kontrako deialdiarekin bat egin du IUK

IRUÑA

Segurtasun Legearen edo Corcuera Legea deitu izan denaren kontra protestatzeko Batzarrek antolatu duen manifestazioan parte hartzeko deia zabaldu zuen atzo Nafarroako Izquierda Unida-Ezker Batuak ere. Manifestazioa Iruñeko gaztelu plazatik abiatuko da gaur arratsaldeko zortzietan.

IUkoen esanetan, aipatu Legea «Gobernu batek sekula Espainiako Konstituziaren aurka egin duen erasorik larriena» da. Jakina denez, Segurtasun Legea indarrean sartzen denean NANA ez daramaten herritarrek erretenitu ahal izango ditu Poliziak eta etxetara epailearen baimenik sartzeko eskubidea izango du. IU alderdiaren iritziz, Lege horren ondorioz norberaren etxea ez da aurrerantzean «leku intimoa eta bortxakazina izango».

Alderdi ezkertiarrek dioenez, gaur egun giza eskubideek bakarrik babesten dituzte elkarte sozial eta politikoak, baina Corcuera Barne ministro espainiarrak inposatu nahi duen Legeak eskubide horiek murriztuko ditu.

IUren iritziz, bilerak, manifestazioak, grebak eta beste-lako mobilizazioak «ez dituzte errespetatuko herritarren nahiaren adierazgarri gisa, neurritz kanpoko isunen txantaiaren menpean egongo bait dira».



Juan Felix Erezumaren familiaren abokatuak.

EFE

Lliça d'Amunt kasua bigarren aldiz artxibatzea errekurritu dute

BARCELONA

Granollerseko 4. instrukzio epaitegiak Lliça d'Amunteko gertaerengatik hasitako diligentsiak artxibatu egin zituen joan zen asteartean. Abokatuak erabaki hori errekurritzeko asmoa agertu dute.

Lliça d'Amunt herrian, maiatzaren 30ean Barcelona komandoaren kontrako polizi operazioan Joan Carles Monteagudo eta Felix Erezuma hil ziren eta epaileak sumarioa ireki zuen gertatutakoan deliturik ote zegoen argitzeko, horrelako heriotzak izaten diren kasuetan egiten den bezala.

Irailaren 16an, Granollerseko epaitegiak sumarioa artxibatzeke agindua eman zuen, aipatutako gertaeretan legehausterik ez zela izan eta «agenteek legezko betebeharraren arabera aritu» zirela argudiatuz. Senideen abokatuak kasua artxibatzeke agindu hori errekurritu zuten eta Toxikologia Institutuaren txosten berria kontutan hartzeko eskatu.

Errekurtso hau aztertu zuen Auzitegiak atzera bota zuen artxibatzeke

agindua eta Toxikologia Institutuaren txostena igorri zion epaitegiari, epaileak eta akusazioak ez bait zuten txosten horren berri. Egun bat beranduago, Agustin Gomez Granollerseko epaileak berriro erabaki zuen kasua artxibatzea. Abokatuen ustez, ordea, txostena «berebiziko garrantzia du», erabakia hartzeko «hogeitalau ordu ez dira nahikoak» eta, ondorioz, artxibatzeke agindua errekurrituko dute.

TOXIKOLOGIA INSTITUTUAREN TXOSTENA

Francesc Arnau, senideen abokatuak lehenengo artxibaketa errekurritu zutenean aditzera eman zuenez, Toxikologia Institutuaren txostenak Erezumaren eskuen azterketa azaltzen zuen. «Erezumaren eskuetan agertutako metal arrastoak ez dira nahikoak tiro aztarnak zehazteko», azaldu zuen Arnau abokatuak. Bere ustez, egiaztapen horrek «Erezumak ez zuela tiro egin erakusten du, eskuetan polbora arrastorik ez zuelako». Bertsio ofizialaren arabera, Erezumak lau tiro egin zituen Uzi fusil batekin.

Bizkaiko Diputazioak 6.000 milioi gehiago erabiliko ditu

BILBO

Bizkaiko Diputazioak iaz baino 6.000 milioi pezeta (333 milioi libera inguru) izango ditu 1992an gestioatzeko. Datorren urteko aurrekontuek 97.335 milioi pezeta (4.075 milioi libera) jasotzen dute, eta iaz 91.918 milioi izan ziren.

Foru erakundeak zergetatik jaso-kotako dirua kopuruak % 9,2ko gorakada izatea espero du. Errenta aitortenean erretentzioak gutxitu egingo dira eta BEZa handitu, biak ere urtariletik aurrera.

Datorren urterako zergen bidez 329.048 milioi pezeta (18.280 milioi libera) jasotzea espero du Foru Aldundiak, baina kopururik handiena, 215.171 milioi pezeta (11.953 milioi libera) Eusko Jaurlaritzari emango zaio, eta beste 56.931 milioi pezeta (3.162 milioi libera) Espainiako Estatuari eman beharreko kupoan joan-

go dira. Juan Luis Laskurain Hazien-da diputatuak jakitera eman zuenez, aurrekontuen idazketa atzeratu egin da aurtan, eta horren ondorioz Batzar Nagusiek ezin izango dute zatiketa onartu 1992ko lehen hilabeteak heldu arte, legeak halakorik onartzen ez badu ere.

Laskurainek esan zuen Diputazioak abenduaren 10ean onartuko dituela aurrekontuak, eta hurrengo egunean dokumentazio guztia Bizkaiko Legebiltzarrean utziko du. «Halere, Batzar Nagusiak ez dute onartuko urtarilaren amaiera edo otsailaren hasiera arte. Horrek esan nahi du Diputazioak 1992. urteari aurrekontuak erabat erabili ahal izan gabe ekingo diola», azaldu zuen.

Haziendak elkartearen gaineko zergak % 10,2 gutxitzeko asmoa erakutsi zuen, «egoera ekonomikoa medio, enpresa etekinak gutxitu direlako».

Arabako kargu publikoentzako ihardunaldiak antolatu ditu EAJk

GASTEIZ

EAJko Araba Buru Batzarrek ihardunaldi batzuk antolatu ditu alderdiko kargu publikoentzat. Gestio Lokalari buruzko IV Ihardunaldion barruan zenbait mintegi antolatu dituzte hilabete honetarako.

Felix Ormazabal Araba Buru Batzarreko lehendakariak atzo aurkeztu zituen Gasteizen hilaren 9an, 16an, 23an eta 30ean egingo diren ihardunaldi hauek. Gasteizen bertan eta Lapuebla de Labarce herrietan egingo dira.

Mintegi horien garrantzia azpimarratu zuen Ormazabalek, «udalak

funtsezkoak direlako euskal esparru instituzionalaren barruan». Arabako kargu publikoen erdia eta alkateen % 60 EAJkoak direla esan zuen buruzagi jeltzale arabarrak.

Ihardunaldi horietan eztabaidatuko diren gaiak ondorengoak dira: antolaketa instituzionala, konpetentzien banaketa, erakunde lokalen erregimen juridikoa, aurrekontuak eta kontabilitatea, udal kontratazioak, hirigintza eta alderdiaren politika.

Urtarrilean herriz, ihardunaldien antolatzaileek ikusitako gai guztiak aztertuko dituzte berriro sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

L A R R U A R E N M A G I A



EUSKAL PIEL

Magiazko ufada bat. Honelakoxea da larruzko azken moda EUSKAL PIELen.
EUSKAL PIEL. Larruaren magia.

BEDIA
ORDUTEGI JARRAITUA:
ASTELEHENETIK LARUNBATERA:
10-etatik 20.30-etara.
IGANDE ETA JAIEGUNETAN:
10-etatik 14-etara.

BEDIA (Bizkaia) • BILBO (Somera, 37) • IRUÑA (Zapateria, 37) • DONOSTIA (Easo, 25) • GASTEIZ (Fueroak, 14)